



# **PRAXIAK ERABAKITZEN DU NOR DEN NOR : URRIAREN 31an, DENOK BILBORA, INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOAREN ALDE!**

Agiri honen bidez, **HERRITAR BATASUNAK** dei egiten dio euskal iraultzaile orori datorren den larunbatean, urriaren 31an, arratsaldeko 6,30etan Bilbon egingen den eta Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimenduak konbokatutako manifestazio nazionalera joateko.

Egun horretan, Iñaki Bilbao, **TXIKITOK** bere 52. eguna beteko du gose eta komunikazio greban. Gudari iraultzaile eredu garri eta miresgarri honek ez dio ekin borroka molde gogor eta ikaragarri honi espetxe barneko erreibindikazio partzial, mugatu edota pertsonal baten alde. Ezta Amnistiaren beraren alde ere.

Horiek guztiak inportanteak eta beharrezkoak izanik ere, **TXIKITOK** bere gose grebaren bidez argi eta garbi kokatu du euskal iraultzaile guztion borrokaren helburu eta ardatza: **INDEPENDENTZIA** eta **SOZIALISMOA**. Eta horrekin batera, **BIRBATASUN NAZIONALA** eta **BERREUSKALDUNTZEA**. **EUSKAL IRAULTZA SOZIALISTA**ren lau helburu historikoak.



Borroka iraultzailean, praxiak erabakitzen du nor den nor. Nor den iraultzaile, eta nor den oportunistak. Nor ari den benetan, eta nor, itxurak egiten.

Gure ustez, urriaren 31ko manifestazio nazionalak eztabaida hau argituko du. Orduan ikusiko da Euskal Herrian nor den iraultzaile eta nor oportunistak kalakaria. Nor den nor. Praxiaz, hitzez eta ekintzez, ez itxurakeriaz.

Gauza asko esan ahal dira, oso ederrak eta oso politak, baina **hemen eta orain, TXIKITO**ren borrokaren aurrean, iraultzaileontzat aukera bakarra dago: berarekin batera borrokatzea, ahal dugun neurrian, hortzez eta haginez, **INDEPENDENTZIA** eta **SOZIALISMOA**ren alde. Eta urriaren 31an, larunbatean, Bilbon egon behar dugu denok. Baldin eta zainetan odola badugu.

## INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA!



**TXIKITO, HIRE BORROKA, GURE EREDU!**